

ARTEA EUSKAL ELIZAREN HISTORIAN

Elizak bere-berea duen adierazpen edo emaitza sortu du: artea eta bereziki arte erlijiosoak; eliz bizitzaren eta kristau-bizitzaren ageriko adierazpen iraunkorra.

Arte erlijiosoak sakratu-kutsua du, hemengoaz gorago jo beharrez, bizikizun, sineste, sentimendu eta gizakiaren egintzaren ondorio gisa. Kristau-arteak, gainera, liturgi helburua ere badu: Jainkoaren bertan izatea errazago somatzeko lagungarri subjektibo eta psikologikoa da Jainkoaren etxean, kristau-elkarteak biltzen den tokian. Beste aldetik, arte sakratuak irudi objektiboak ere maiz agertzen ditu; bakoitzak izan dezakeen eder-sen bereziaz at, irudi eta gainerakoek, ezberdintasun jorrien artean, bizitzaren alderdi objektiboa adierazten dute.

Kristau-artearen kontzeptuak alde ezberdinak ditu: batzuetan kristau-edukiak izanik, elizaren eta liturgiaren zerbitzuan dagoen artea esan nahi du; beste batzuetan, berriz, gizakiaren kristau-pentsaera adierazten duena, hots, munduak kristau-erlijiotik jaso dituen gogoaren, izpirituaren eta etikaren balioak isladatzen dituena.